

## HGB1E, 24

[BAINA ZUK]

Baina zuk  
unibertsal zarelako,  
ez omen duzu Herririk,  
mundua besterik.

Baina guk,  
Herri bat garelako,  
dugu mundua,  
mundua geuk osatzen dugula.

Baina zuk,  
universal zeralako,  
gizadiaren arazo,  
ardura ta gorabeherak,  
zeureak omen dituzu.

Baina guk,  
Herri bat degulako,  
gizadiaren arazo,  
ardura ta gorabeherak,  
geureak ditugu.

Zu  
bakar,  
edo ezinezko zumar  
ezin baten adar.

Gu  
talde.  
Baina guk ba dakigu  
sustraiak nun ditugun ere.